

A decorative graphic on the left side of the slide, featuring a vertical black line intersected by a horizontal black line. To the left of the intersection are three overlapping squares: a blue one on top, a red one on the left, and a yellow one on the bottom.

# Euskararen historia: mitoak eta ipuinak

---

**Euskararen lekua munduan eta historian: mitoetatik  
egitateetara**

Blanca Urgell  
Eibar, 2014-07-17



# Ezagutzeko manierak

---

Jorge Wagensberg, *Ideas para la imaginación impura* (1998)

- Ezagutza zientifikoa: hiru hatsarre “deserosotan” oinarritua:
  - objektibotasuna
  - ulergarritasuna
  - dialektika esperimentalak edo faltsabilitatea
- Ezagutza artistikoa: hatsarre harrigarri bakar batean oinarrituta:
  - Zenbait konplexutasun mugagabe, berez ulertezin ere izan daitezkeenak, irudikapen mugatu baten (partitura, irudi, imintzio...) bitartez transmiti daitezkeela.
- Ezagutza errebelatua: bi hatsarre eraginkorretan oinarritua:
  - Errealitate osoaren ezagutzaren jabe den izaki bat bada
  - Izaki horrek (batzuetan) ontzat hartzen du guri errebelatzea bere ezagutza(ren parte bat).



# Hizkuntzaren historia non kokatzen da?

---

- Sortzez eta asmoz ezagutza zientifikoaren esparruan
  - Ulergarritasuna (= trinkotasuna)
    - *asto/astakeria, zoro/zoratu, otso/otsakume, deutso/deutsala...*  
*o > a bi silabako oinarriak eratorri edo elkartzen direnean.*
  - Dialektika esperimentalak
    - Mitxelena 1958
      - **Hipotesia:** Landucciren hiztegia (1562) Arabako euskara galduaren lekukotasuna da.
      - **Ondorioak:** Hipotesi horretan oinarrituta testu gehiago (Portal, Albeniz, Gamiz, Sevillako poesia...) araberezkotzat jo izan dira.
      - **Datu berriak:** Lazarragaren eskuizkribuaren agerpenak bermatu du Mitxelenaren hipotesia.
- Alabaina, baditu berezitasunak
  - nagusiki diziplina historikoa izateari dagozkionak
    - larriena, datu falta
      - adib.: euskararen ahaideak



# Dialektika

---

- Hipotesi onak: ahalik eta datu/gertakari gehien ondo azaltzeko gaitasuna dutenak (**Hizkuntzalaritza historikoa**)
- Datu onak: behar bezala bildu eta egiaztatuak, testuinguruan ongi kokatuak eta honen arabera ondo interpretatuak (**Filologia**)



# Filologiaren lerradura

---

- Sarri ezagutza zientifikotik kanpo jokatzen du
  - zientzia izateko asmorik gabe (literaturatik gertuago)
    - subjektibotasuna
    - erretorikaren erabilera
    - xehetasunak (vs. ulergarritasuna)
  - axolakabe
    - Zer dira datu txarrak?
      - okerrak
      - zatikazkoak
      - zalantzazkoak
      - egiaztatu gabeak
      - testuingurutik atereak
      - anakronikoki interpretatuak
      - ...
      - daturik eza bera
- Datu txarren gainean oinarritutako hipotesiak nekez izan daitezke eraginkorrak
  - hurrengo ikertzaileari denbora galarazteko modukoak dira



# Literaturaren historiak

---

- Euskararen historiaren “eskuliburu” bakarrak orain arte
- Sarritan (ez beti)
  - inoren lanetan oinarrituak
  - aurreko historietan datozen berriak errepikatzerara mugatuak
- Ikusiko dugu...
  - datu gisa aurkezten diren “datuak” egiazki hipotesiak direla (edo datu txarrak, besterik gabe)
  - ikertzailearen begiradak zeharo baldintzatzen duela
    - ez bakarrik zein hipotesi egingo duen
    - baita hipotesiari eusteko zein datu erabiliko diren ere (eta zein ez)

# Tartasen *Onsa*-ren argitalpen berankorraren kasu harrigarria

---



# Tartasen estuatasunak

## Literatur historietan

- **Datua:**

- *Onsa hilzeko bidia*-ren lehen eliz baimena eta azkenaren artean 8-9 urte pasa ziren (1657-1665)

- **Hipotesia:**

- Badirudi liburuak argitaratzeko arazoak izan zituela.

	KM 1960	Sarasola 1976	Villasante 1979	Urkizu 2000	Salaberrim 2004	guztira
bai	-	-		-	x	1
zalantzan/ hipotesi gisa	-	-	x	-		1
ez	-	-		-		0





# Tartasen estuasunak

---

- Hipotesiaren egilea:
  - Darricarrère (1907-1909)
- Hipotesi laguntzaileak (azalpenak):
  - Darricarrèrek:
    - Liburuan badira moraltasunaren aldetik susmagarri diren pasarteak.
    - Iradokizuna: protestantekume baten emaitza?
  - Salaberri Muñoak:
    - Autoritate-mailakatzea heterodoxoegi (paganoeatik hasten)
- Hipotesiaren abantailak: Tartasen *Onsa*-ren argitaratze berankorra azal lezake
- Hipotesiaren korolaria: euskal idazle gehiagok bezala, Tartasek zailtasunak izan zituen argitaratzeko.



# Tartasen estuasuak

---

- Datuak nolako?
  - Hipotesiak ez ditu datu guztiak hartzen kontuan.
- Gezurta liteke?
  - Badirudi baietz.



# Datuak nola begiratu?

---

- Darricarrèreren begirada:
  - Atarraçeco erretor eta Çuberoa herrico Vicario generala eta Officiala (1657)
  - Utziateco prioria eta Aquiçeco Vicario generala eta Officiala (1659)
  - Baionaco Apespicua (1665)



# Datuak nola begiratu?

---

- Gure begirada:
  - Atarraçeco erretor eta **Çuberoa herrico** Vicario generala eta Officiala (1657)
  - Utziateco prioria eta **Aquiçeco** Vicario generala eta Officiala (1659)
  - **Baionaco** Apespicua (1665)



# Gure hipotesia


---

- Badirudi honek ohi baino denbora gehiago hartu ziola zeren eta...
  - bera baita lehenengoa (eta bakarra?)
  - bere elizbarrutitik kanpora harrera egitea lortu behar izan baitzuen
- Tartasek Iparraldeko hiru eliz barrutietan eskatu (eta lortu) zuen baimena...
  - zeren eta nahi zuen hiruretan liburua zabaltzea.
  - zeren eta Iparraldeko euskaldun guztientzat idatzi nahi izan zuen.



# Leizarragaren porrota

---



# Leizarragaren porrota

## Literatur historietan

### ■ Datuak

- Leizarraga protestantea zen
- Protestantismoak porrot egin zuen Frantzian
- Eliza katolikoak liburu protestanteak debekatu zituen
- Lapurtera klasikoko idazleek beste era batera idatzi zuten

### ■ Hipotesia:

- Leizarragaren liburuak Euskal Herritik desagertu ziren
- Leizarragaren saioak ez zuen ondoriorik izan euskal literatur hizkuntzaren bilakaeran (*erraldoi bakartia*)

	KM 1960	Sarasola 1976	Villasante 1979	Urkizu 2000	SalaberriM 2004	guztira
bai	x	x	x	x	x	5
zalantzan/ hipotesi gisa						0
ez						0



# Leizarragaren porrota

---

- Nire prozesua (1999)
  - **Materrek (1617)** Leizarraga erabili duela dirudi
    - lexikoan batetortze ezohikoak dituzte.
  - **Axularrek (1643)** erabili du!!!
    - TBko aipuak Leizarragarenetik hartuak dira, eta Axularren hizkera eta idazkerara egokituak

Lç: *Nahi duc bada goacen eta bil deçagun hura?* (Mt 13, 28)  
Ax: *Nahi duçu bada goacin, eta gaixto hura (...) vil deçagun* (Gero 120).
- Salaberri Muñoak behin betiko frogatu (2000)
  - huts bateratzailea

Lç: *Han içanen da nigar eta **hortz** garrascots* (Mt 8, 12).  
Ax: *Han içanen dela nigar, eta **hortz** carrasc-hots* (Gero 585).  
Lat.: Ibi erit fletus & stridor **gentium** [sic, *dentium*-en ordezt].





# Leizarragaren porrota?

---

- Datu “berriak”:
  - Povreauk (c. 1665) Leizarraga erabili eta aipatu zuen hiztegian (Urquijo 1909)
  - Larramendik (c. 1733) TB-ren kopia bat erabili zuen, Baionako kanonigo batena (Tellechea-Idigoras 1966)
  - Haranederrek (c. 1740) TB-ren lehen itzulpen katolikoa egiteko Leizarragarena (ere) erabili zuen (Ruiz Arzalluz 1987)



# Leizarragaren porrota

ikuspegi berria

---


- **Datua:** Leizarragaren liburuak (TB gutxienez) nasaiki ibili ziren euskal elizgizonen artean XVII eta XVIII. mendeetan
- **Gure hipotesia:** Leizarragaren lanak eragina izan du literatur euskararen bilakabidean
  - Noiz?
    - hala lapurtera klasikoan (*Euskara Zaharra*)
      - hasieratik (Materre, 1617)
      - etengabe (Haraneder, c. 1740)
    - nola Larramendiren egitasmoan (*Lehen Euskara Modernoa*)
  - Zertan nabarmen?
    - grafian
      - txistukari frikariak vs. afrikatuak (*ts, tz, ch/tch*)
      - kontsonante hasperendunak (*k, th, pp*)
    - lexikoan



# Ondorioak

---

- Hipotesiak hipotesi dira, eta horrela aurkeztu behar dira.
- Ikertzailearen begiradak eragina du datuen tratamenduan eta ondorioetan:
  - errazago sinesten azalpen dramatikoak?



eskerrik asko!

eskerrik asko! *eskerrik asko!*

*eskerrik asko!*

*eskerrik asko!*

eskerrik asko!

eskerrik asko,!

*eskerrik asko,*

eskerrik asko!

**eskerrik asko!**